

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bedita Larrakoetxea Agirrezabala

*Oñati, Gipuzkoa
(1894-1990)*

Aurkibidea



Biografia

1894an Zeanurin (Bizkaia) jaio zen aita laterandarra.

Nafarroako Altsasun eta Oñatin ikasi eta Gasteizen abadetu zen 1917. urtean. Gero Oñatiko

komentuan (agustinoen apaizgaitegian) irakasle. 1928tik aurrera, Oñatiko Udal

Irakastegiko Zuzendari eta 'Rodrigo Mercado Zuazola'

izeneko Irakaskuntzako gau-eskolako irakasle izan zen 1936.

urtera arte, eta horretarako Iruñeko Irakasle Eskolan

azterketak gainditu eta Irakasle Agiria lortu zituen. Gerra zibilak

irten zuenean, bere

euskaltzaletasuna zela-eta,

Bizkai aldera alde egin behar

izan zuen 1936ko irailaren

azkenetan. Hurrengo urteko

maiatzean Ingalaterrara joan

zen gerratik ihesi han babestu

ziren euskal haurren arduradun

bezala. Handik, urtebete

pasatxo iragan eta gero,

Uruguaira eta ondoren

Argentinara jo zuen; bertan

Saltako 'Colegio Belgrano'

delako eskolan 1970. urtera arte

irakasle izateko. 1972an

Amerikari agur egin eta atzera

Euskal Herrira etorri zen eta

Oñatin, agustinoen egoitzan,

eman zituen bere bizitzako

azkenengo urteak 1990ean hil

zen arte. Baina, hil aurretik

1979an, euskaltzain ohorezko

izendatu zuten eta zenbait

omenaldi ere egin zioten.



Bizitzan zehar lan dezente idatzi zituen, baina berak egindako

idazlanik handiena eta

neketsuena, duda barik, 'William

Shakespeare-ren antzerki-lan

guztiak euskeraz' izan zen:

banaka batzuk "Euzko Gogo"

aldizkarian 1950eko

hamarkadan argitaratu baziren

ere, edizio osoa 1976an kaleratu

zen, hogeita hamazazpi

antzerki-lan guztira. Oñatiko

Udalak 1988an Bedita

Larrakoetxea hil aurretxoan eta

haren omenez, ordura arte

'Oñatiko Udal Euskaltegia' soila

zenari 'BEDITA LARRAKOETXEA'

Zintak

ONA-329

- **Proiektua:** Roberto Altunaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altuna Erle, Roberto
- **Data:** 1983-01-01
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Altuna Erle, Roberto

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com